

# “El verdugo” antzezlan estreinatuko da gaur Arriagan

Bilboko Antzokian, gaur hasi eta otsailaren 3a bitartean izango, da ikusgai lan ezagun hori

Andoni Iturbe Gilbo

**BILBOKO ARRIAGA** Antzokiak “El verdugo” izenburuko antzezlan estreinatuko du gaur. Otsailaren 3a bitartean ikusgai izango den tragikomedia horren zuzendaria Luis Olmos da, eta aktore nagusiak Juan Echanove eta Luisa Martin dira.

Antzezlan hau, Luis Garcia Berlanga eta Rafael Azconaren zine-gidoitik Bernardo Sanchezek egin duen egokitzapena da. Bertan 60. hamarkadako gizarte espainiarra deskribatzen da. Lanak ezaugarri tragikomikoak ditu eta Madrillgo Dantzaren Antzerkia Konpainiak, Barbotegik eta Llave Maestrak ekoiztu dute.

Bernardo Sanchezek egin duen egokitzapena hiru urtez luzatu den egitasmoa izan da, eta antzerkirako testu esanguratsu eta bikaina bihurtu da. Zine gidoiarekiko fidelia izaten saiatu da eta horri egin izan dizkion ekarpenak ikusentzulari ikuspegi berria eskainiko dio.

Heriotz zigorra da “El verdugo” antzezlanaren ardatza, eta askatasuna galtzearen eta ametsak lagatzearen inguruan gogoeta egiteko aitzakia bihurtu da. Borroraren figuraren bitartez, antzezlanaren egileek gizakiaren hauskortasuna eta beren ideia eta printzipioak uztera behartzen



Luisa Martin eta Echanove, atzo emaniko prentsaurrekoan. Balleador

dien gertakariak erakusten dituzte.

Fivean, antzezlanaren xedea egileen heriotz zigorraren hausnarketatik haratago, gizabanakoren beharizan funtsezkoenak jorratzea da; gizakiaren askatasuna eta nahiak erantzukizuna eta konpromisoaren aurka, kontrabanezko irizpideen elkargune.

Istorioa Madrilen gertatzen da, 60. hamarkada inguruan. Amadeo bere ohiko borroa jardueratik jubilatzeaz dagoen gizona da.

Ustez bere azken exekuzioa izango dena egin berri du. Orduan, Jose Luis hobiratzailea agertzen da, eta Amadeoren alaba Carmenekin maitemintzen da, istorioak bira bat emanez. Biak arima bikiak dira; patuak eta bien bizi baldintzek batu egin dituzte: Carmen borroaren alaba da eta Jose Luis hobiratzailea. Biek bide berria ireki nahi dute, bizi duten egoera ahazteko.

Heriotz zigorra salatzea ezezik bizitzaren gogoeta sakona egitea xede duen lan horren egokitzapena Bernardo Sanchezek egin du Juan Echanove da aktoreetako bat.

## “Euskara”, euskal tipografien nazioarteko enkantea

Nazioarte mailako ustiapen eskubideak eta jatorrizko 15 programa informatiko daude jokoan, besteak beste

A.I. Gilbo

“EUSKARA”, EUSKAL Tipografien nazioarteko enkantea antolatatu du Hinrich Sachesek (Moyuako Brancas aretoaren laguntzarekin) datorren martxoaren 9rako. Arratsaldeko 18:30etan izango da ekitaldia.

Ustiapen eskubideak eta jatorrizko hamabost programa informatiko ipiniko dira enkantean. Baita tipografiak osatzeko erabilien zuten hasierako programa edo-eta tipografiek garatzen dituzten puntu zehatz bakoitzi dagokien bektore-koडे guztiak. Subasta euskal eta mundu osoko partikular, erakunde, enpresa eta instituzioei irekita dago. Enkantean bertan lortuko dituzte eskubide horiek eskaintza onena egiten duenak. Es-

lepenak telefonoz ere egin daitezke. Irteera prezioa 70.000 eurokoa izango da.

Euskararen tipografiaren historian, guztira 15 “Euskara” tipografia-multzo bildu dute, eta guzti horien eskubideak enkantean lortu ahal izango dira. Ezagunena eta euskal kulturaren osagai ezagun gisa finkatu dena, “Euskara” tipografia da. Jatorriz Erdi Aro bukaerakoa da baina 20. hamarkadaren hasieran azalduzen.

**Erromatarren ekarpena**

“Euskara” letra-motaren jaraunspen nagusia erromatarrek lagatuko letretatik datu. Erromatarren letren itxura orokorra Euskal Herriaraino heldu bazen ere, ez zen horrela gertatu letrak grabatzeko lanabesarekin. Garai hartako eskulangilek zituzten erromatarren teknika metalurgikoak eta oso lanabes bakanak eratu behar izaten zituzten: letren inguruan arriak karraska-



Enkantearen arduradun Hinrich Saches, atzoko aurkezpenean. Balleador

**Enkantea**

1: Hinrich Sachesek antolatatu du Moyuako Brancas aretoaren laguntzarekin datorren martxoaren 9an Enkantea partikular eta erakundeak deitu dituzte

tuz, esaterako. Garai hartan, idazkera-zientzia ez zen ohikoa. Grabatua teknikarekin uztertuz, familia batzuek bakarriz gordetzen zuten altzarrazen.

Moda tipografikoek “Euskara” letra-mota aldatu badute ere, haren nortasuna babestea lortu zuten. Duela gutxi, Biarritzeko argitaletxe batek ikerketa bat egin zuten egun aurrerapen teknologikoei esker dagoen tipografia ordenagailuetan erabili ahal izateko.

## Donostiako Orfeoia, Berlinden

Verdiren “Requiem”-a interpretatuko du Berlingo Orkestra Sinfonikoarekin batera

A.I. Gilbo

**DONOSTIAKO ORFEOIAK** Verdiren “Requiem”-a interpretatuko du ostegunean eta larunbatean Berlingen, Orkestra Filarmonikoarekin eta Suediar Irratiaren Abesbatzarekin batera, Claudio Abbado maisuaren zuzendaritzapean, musikagile italiarraren heriotzaren mendeurrenarekin bat eginez.

Angela Georghiu (sopranoa), Daniela Barcellona (ahots altua), Roberto Alagna (tenorea) eta Julian Konstantinov (baxua) izango dira bi kontzertuen abeslari bakarlariak. Emanaldietan, Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Roman Sudupe Gipuzkoako ahalidun nagusia eta Odon Elorza Donostiako alkatea izango dira, besteak beste.

Verdiren “Requiem”-a XIX. mendeko musika italiarraren gailurretako bat da, eta Orfeoia errepertorioaren zatia da duela urte askotik. Bere laguna zen Alejandro Manzoni idazlea eta poeta oroitzeko sortua, Verdik sinfonia, abesbatza eta operaren osagaiak uztartu zituen, liturgia eta antzerkiarekin batera.

Claudio Abbado mundu osoko orkestra zuzendari garrantzitsuenetakoa da, eta hainbat orkestraren zuzendari izan da. Hala nola, Milaneko Scalaren Orkestra, Londreseko Orkestra Sinfonikoa edo eta Vienako Orkestra Filarmonikoa.

Horrez gain, Donostiako Orfeoia 1997an zuzendu zuen lehen aldiz, Madrileko Auditorio Nazionalan egingako kontzertu batean, non Berlingo Orkestra Filarmonikoa ere hartu zuen parte. Horrela, Donostiako Orfeoia eta Berlingo Orkestra Filarmonikoa lau emankizun egingo dituzte.

**Verdi gehiago**

Hala ere, Berlingo bi emanaldiak ez dira izango Donostiako Orfeoia Verdi omentzeko aurten egingo dituen bakarrak. Izan ere, otsailaren 23, 24 eta 25ean, lau lan ezagun interpretatuko ditu Barzelonako Auditorioan, bertako Orkestra Sinfonikoarekin eta Lawrence Foster-en zuzendaritzarekin.

Halaber, ekainaren 8an, eta Pribanza 2001. Ziklo Lirikoaren barruan, Donostiako Orfeoia eta RTVEko Orkestra Verdiren opera abesbatzetan oinarritutako kontzertua eskainiko dute, Barzelonako Musikaren Jauregian, Sainz Alfaro zuzendari duela.

Era berean, Donostiako Musika Hamabostaldien baitan, Orfeoia bat egingo du jaialdi Verdi eskainiko dion omenaldiarekin, eta “Requiem”-a interpretatuko du Donostiako Kursaal, Royal Philharmonic Orkestrarekin batera. Emanaldi horretan, Daniele Gatti maisua izango da zuzendaria.